

Ginkana

–Kaixo! Ongi etorri gure ginkanara. Talde bakoitzak ibilbide txiki bat egingo du, eta lau proba izango ditu.

–Adi! Hauek izango dira:

–Hasteko, aulkiak behar ditugu. Jarri aulkiaren ezker aldean eta eman 10 buelta aulkiaren inguruan, bost ezkererantz eta beste bost eskuinerantz.

–Jarraian, bigarren proba egingo dugu. Bigarren proba egiteko, goilara bat eta arrautza bat behar ditugu. Jar ezazue koilara ahoan, eta arrautza goilararen gainean. Arrautza beste aldera eraman behar duzue, baina eskuekin ukitu gabe. Erortzen bazaizue, berriz hasiko zarete.

–Ondoren, punteria-jokoa egingo dugu. Edalontzi bat, lastotxo bat eta ping-pongeko pilota bat behar ditugu. Edalontzia etzanda jarriko dugu gure aurrean, lau metrora; gero, lastotxoa ahoan jarriko dugu, putz egingo dugu pilota aurrerantz joateko, eta edalontzirantz eramango dugu, bertan sartu arte.

–Ibilbidearen azken proba dantzatzea izango da. Horretarako, 22. Korrikako kantaren zati baten koreografia dantzatuko dugu.

–Eman eskua ondokoari eta osatu biribil bat. Igo eskuak gora eta behera, eta egin bi txalo eta errepikatu.

–Bigarren urratsak “tipi-tapa” izena du. Jo eskubiko (eskuineko) eskuarekin bularrean, jo ezkerreko eskuarekin bularrean eta gero izterrean, eta errepikatu bi aldiz. Bukatzeko, eman bi kolpe oinekin lurrean eta egin txalo bat.

–Proba guztiak azkarren egiten dituen taldeak irabaziko du. Zorte on!